

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresank bi atal izango ditu alde batetik.

- Diseinadore taldea, bertan diseinadore talde batek filtro orokor bat egingo du, gero, gure eskaerak kontuan izanda eta ikusita eskaera bakoitza ze kotxe mota eta marka den filtroa egokituko dute.
- Marketing taldea, bertan bezeroekin harreman zuzena izango dute, baita era konzesionario desberdinekin harremanetan jarriko dira bakoitzak dituen duda eta beharrak asetzeko.

Behin diseinadoreak filtroa diseinatuta dutenean, kanpoko enpresa bati aginduko diogu filtroa osatzea, noski filtroak egiten duen enpresa aldaketa klimatikoaren alde egin beharko du lana eta beti produktu ekologiko eta ez-kutsatzaile erabili beharko ditu, hori bete dadien bi asteetan behin gure enpresako diseinadore bat pasatuko da dena ondo dagoela egiaztatzeko. Zerbait gaizki dagoela ikusten badugu enpresa hori egindako filtro guztiak erreparatuko ditu eta gaizki ekoiztuta badaude enpresa arduratuko da filtro berriak egiteaz eta gastu guztiak beraien kabu joango dira, hau guztia dossier batean jasota egongo da eta bai ekoizten duen enpresak eta bai gure enpresak dosierra sinatu egingo dute.



Gure produktua saltzeko konzesionario desberdinekin hitzarmen bat sinatuko dugu bertan kotxe berriak erosten dituzten bezeroei filtroen berri ematera konprometitu egingo dira. Baita ere konzesionariora filtroarekin arazoa duen bezero bat iristen denean filtro ekologikoaren berri emango dio eta behar duen informazio guztia ematera konprometitu egingo da.



Produktua konzesionario kanpotik bezeroei saltzeko gure webgunea erabiliko dugu bertan gure filtro desberdinak aukeran izango ditugu eta baita ere harremanetan jartzeko galderak egiteko atala er izango dugu eta gure webgunea kontrolatzen duen lanb taldea ahal duenean bezero horri erantzun bat bidaliko dio eta behar izatekoetan telefonoz edo aurrez aurreko bilera bat egingo du filtroen eazalpen guztia emateko eta gure produktuaren berri emateko.

Beraz gure produktuaren berri izateko baliabide desberdinak jarriko ditugu. Besteak beste, konzesionario desberdinen hitzarmena eta gure webgunearen bitartez. Behar izanez gero aurreko paragrafoan azaldu dugun bezala gure lan taldea bezeroarekin aurrez-aurreko bilera egiteko edo telefonoz bilera egiteko prest egongo litzateke.